



UDALAREN OSOKO BILKURA Bileraren akta

2023ko irailaren 13ko, asteazkena, bilkuran, akta onetsi zenean, egin ziren oharrak biltzen ditu.

Data: 2023ko uztailaren 18a, asteazkena.

Ordua: 20:00.

Ezohiko bilkura.

Oyón-Oiongo udaletxeko bilkuren aretoan, Jose Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion) alkate jauna bilkuraren buru dela, honako zinegotzi jaun-andre hauek elkartu dira Udalbatzaren osoko bilkura egiteko: Leire Martínez Flores (EH Bildu Oion), Eva María Frías Del Val (EH Bildu Oion), Leire Saenz Verano (EH Bildu Oion), Unai Bengoechea Múgica (EH Bildu Oion), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Kontxi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Sergio Rozas Núñez (EAJ-PNV), Eduardo Inclán Gil (PP), Rosa Vázquez Iglesias (PP) eta Oscar Layana Río (PSE-EE (PSOE)).

Bilkura eratu den unean bertan ez zeuden zinegotziak: bat ere ez.

Alfredo S. Sastre de A. idazkari titularra bertaratu da saiora, idazkari gisa.

Saioa alkate-udalburuak deitu du, arauk ezarritako aurrerapenarekin eta publizitatea eginda, eta honako honen arabera:

Gai-zerrenda

1. “Plaza Nagusia eta San Vicente plaza, kale nagusia eta Baranda eta Ánimas kaleak eta Taconera plaza berrurbanizatzea” obraren kontratua adjudikatzea.
2. Barriobusto eta Labrazako kontzejuek Oyón-Oiongo Udalaren zergetan parte hartzeko protokoloa.
3. 2022 ekitaldiko kontu orokorra onestea.
4. 2/2023 aurrekontu-aldaketaren behin betiko onespeneren kontu ematea.
5. Ohiko bilkuren gai-zerrendaren egitura.
6. Abuztuko jaien programaren inguruan hartutako erabakien eta bestelako puntuen inguruko informazioa.

Bilkuraren izaerarekin eta gai-zerrendarekin bat etorritz, eta gaiak jorratu eta bozkatu ostean, honako erabaki hauek hartu dira. Saioa grabatu egin da, 2023ko uztailaren 5eko saioan hartutako erabakia gauzatuz.

- 1) **“Plaza Nagusia eta San Vicente plaza, kale nagusia eta Baranda eta Ánimas kaleak eta Taconera plaza berrurbanizatzea” obraren kontratua adjudikatzea.**

Alkate jaunak plaza nagusiko obraren lizitazio-prozesuaren berri eman du.

Layana Río jauna (PSE-EE (PSOE)): Ez dakit unea den, baina zenbait gauza proposatu nahi nituzke, hobekuntza batzuk. Zuhaitz gehiago egotea nahi nuke, zuhaitzen itzala hobe da. Eta, ahal bada, jardineren orde zuhaixkak jartzea. Eta San Vicente plazan zuhaitzen bat gehiago jar daiteke. Kioskoari dagokionez, guztiz ez desagertzea nahi nuke, eta lekualdatzea, edukia ematea.



Inclán Gil jaunak (PP) obren egutegiari eta eraisketaren hasierari buruz galdetu du.

Alkate jauna: Plazari itzal gehiago ematea aztertzen ari gara. San Vicente plazan zuhaitzia berreskuratuko dugu. Inkesta bat egingo dugu WhatsApppeko hedapen-taldearekin, kioskoa birkokatzeko. Eraisketa garrantza izaten ari da. Kontratatistak zin egin du abuztuaren 18rako eraitsita egongo dela. Urbanizazioak beste bi enpresa koordinatzea dakar, eraisketa egiten duenaz gain.

Aurrekariak:

1. 264/2022 Foru Agindua, ekainaren 29koa, Lurralde Orekako diputatuarena, ekainaren 14ko 356/2022 Erabakiaren bidez erakunde horri emandako dirulaguntza jasotzeko baldintza eta betekizun zehatzak ezartzen dituen, Obra eta Zerbitzuen Foru Planeko 2022-2023 Programaren kargura, obra honetarako: Plaza Nagusia eta San Vicente plaza, kale nagusia eta Baranda eta Ánimas kaleak eta Taconera plaza berrurbanizatzea.
2. Plaza Nagusia eta San Vicente plaza, kale nagusia eta Baranda eta Ánimas kaleak eta Taconera plaza berrurbanizatzeko proiektua, Juan Carlos Merino Álvarez arkitektoak idatzia (MD. Arquitectura, Urbanismo y Sociología SLP), kontratuko 969.200,82 euroko betearazpen-aurrekontuarekin.
3. “Plaza Nagusia eta San Vicente plaza, kale nagusia eta Baranda eta Ánimas kaleak eta Taconera plaza berrurbanizatzea” obraren finantzaketa-plana, Udalak 2023ko martxoaren 15eko saioan onetsia eta Arabako Foru Aldundiko Lurralde Orekaren Zuzendaritzak 2023ko apirilaren 20an onetsia.
4. Kontratazio-espeditzea, prozedura sinplifikatuaren eta ohiko izapidetzearen bitartez, “Plaza Nagusia eta San Vicente plaza, kale nagusia eta Baranda eta Ánimas kaleak eta Taconera plaza berrurbanizatzea” obra kontratatzeko, ezaugarri berezien koadroa barne.
5. Kontratazio-mahaiak 2023ko ekainaren 12an egindako bilkura. Saioan, Inesco Constructora SAren aldeko adjudikazio-proposamena egiten zaio kontratazio-organoari. Azken horrek egin du eskaintza onuragarriena eta mahaiburuari baimena ematen dio proposatutako hautagaiari aldeztu beharrezkoa den dokumentazioa eskatzeko, adjudikazioa erabaki ahal izateko. Dokumentazio hori AKPAren 23B artikuluan jasota dago.
6. Eskatutako dokumentazioa aurkeztu du Inesco Constructora SA enpresak, eta, gainera, behin betiko bermea ere bai; kontratuaren adjudikazio-zenbatekoaren % 5 da, hau da, 37.646,65 euro (hogeita hamazazpi mila seihun eta berrogeita sei euro eta hirurogeita bost zentimo).

Honako hau adostu da:

- 1) Inesco Constructora SA enpresari adjudikatzea “Plaza Nagusia eta San Vicente plaza, kale nagusia eta Baranda eta Ánimas kaleak eta Taconera plaza berrurbanizatzea” obraren kontratua, 911.048,77 euroko (bederatzihun eta hamaika mila eta berrogeita zortzi euro eta hirurogeita hamazazpi zentimo) prezioa eskaini baitu, honela banatuta:
 - a. Prezioa guztira: 752.932,87 (zazpiahun eta berrogeita hamabi mila bederatzihun eta hogeita hamabi euro eta laurogeita zazpi zentimo), BEZik gabe.



- b. Dagokion BEZA: Ereduzkoa (% 21), 158.115,90 (ehun eta berrogeita hamazortzi mila ehun eta hamabost euro eta laurogeita hamar zentimo).

Eta 1.400 ordu eskaintzen ditu lan-kontratueta, lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonekin, eta bermearen epea 24 hilabetera handitzea eskaintzen du; hori horrela, eskaintako bermearen epea 1 urte + 24 (hogeita lau) hilabetekoa da, hau da, 36 (hogeita hamasei) hilabetekoa. Bestalde, obra 40 (berrogei) astetan gauzatzeko konpromisoa hartzen du, aurkeztutako GANTT diagramaren arabera. Arrazoiak: eskaintzak puntuazio altuena lortu du kontratazio-mahaiaren sailkapenean eta eskatutako dokumentazioa aurkeztu du.

- 2) Adjudikaziodunari eskatzea ahalik eta azkarren eta, nolahi ere, hamabost egun balioduneko epean, kontratua formalizatzeko.
- 3) Adjudikaziodunari ohartaraztea, kontratua formalizatzeko errekerimendua bete ezean, lizitazioaren aurrekontuaren ehuneko hiruko penalizazioa ezarriko dela, BEZik gabe.

Aldeko 11 (hamaika) boto; Jose Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Leire Martínez Flores (EH Bildu Oion), Eva María Frías Del Val (EH Bildu Oion), Leire Saenz Verano (EH Bildu Oion), Unai Bengoechea Múgica (EH Bildu Oion), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Kontxi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Sergio Rozas Núñez (EAJ-PNV), Eduardo Inclán Gil (PP), Rosa Vázquez Iglesias (PP) eta Oscar Layana Río (PSE-EE (PSOE)).

2) Barriobusto eta Labrazako kontzejuek Oyón-Oiongo Udalaren zergetan parte hartzeko protokoloa.

Alkate jauna: Protokoloa aldatu beharra daukagu, sinatzen duen alkatea aldatzeko, eta, bide batez, azaroan egingo den ekarpena epe batera murriztuko dugu.

Aurrekariak:

- 1) 2023ko maiatzaren 25eko bilkuran hartutako erabakia, horren bidez Barriobusto eta Labrazako kontzejuek Oyón-Oiongo Udalaren zergetan parte hartzeko protokoloa onesten da. Laugarren puntuak Eduardo Terroba Cabezón alkate jauna ahalduz du, gaur alkate izateari utzi diona.
- 2) Protokoloaren 4. klausulak ekarpenaren ordainketa sei hilabetez behin egingo dela dio, zati berdinetan.
- 3) Klausula aldatzeko proposamena.
Ekarpenaren ordainketa urtean behin egingo da eta honako honen arabera: Batzarrak berriaz eskatzen duenean. Eskararekin batera, urteko kontua Aldundian aurkeztu izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko da. Ordainketa azaroaren azkeneko egun balioduna baino lehen egin beharko da.

Hau erabaki da:

- 1) Onestea Barriobusto eta Labrazako kontzejuek Oyón-Oiongo Udalaren zergetan parte hartzeko protokoloa 3. aurrekariaren arabera aldatzea.
- 2) Alkate jauna, José Manuel Villanueva Gutiérrez, gaitzea beharrezkoak diren dokumentu guztiak sinatzeko, zehazki protokoloak jasotzen dituen dokumentuak sinatzeko.



- 3) Ebazpen hau, protokoloaren kopia batekin batera, Arabako Toki Administrazio eta Finantzen Lurralde Kontseiluari eta Barriobustoko eta Labrazako administrazio-batzarrei bidaltzea.

Aldeko 10 (hamar) boto: Jose Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Leire Martínez Flores (EH Bildu Oion), Eva María Frías Del Val (EH Bildu Oion), Leire Saenz Verano (EH Bildu Oion), Unai Bengoechea Múgica (EH Bildu Oion), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Kontxi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Sergio Rozas Núñez (EAJ-PNV), Eduardo Inclán Gil (PP) eta Rosa Vázquez Iglesias (PP).

Abstentzioak 1 (bat): Oscar Layana Río (PSE-EE (PSOE))

3) 2022 ekitaldiko kontu orokorra onestea.

Aurrekariak:

1. Oyón-Oiongo Udaleko Kontuen Batzorde bereziak 2023ko maiatzaren 17ko bilkuran 2022 ekitaldiari dagokion kontu orokorren aldeko txostena egin zuen.
2. Kontuaren dokumentazio xehatua zinegotziei 2023ko maiatzaren 15ean bidali zitzaien.
3. Kontu orokorraren espedientea 2022 ekitaldiari dagokio, eta jendaurrean jarri zen hamabost eguneko epean. Jendaurrean jartzeko epean, 2023ko maiatzaren 26ko ALHAOn (61. zk.) 1531 iragarki gisa argitaratu zen, bai eta udal-oholean ere. Epe horretan ez zen erreklamaziorik, eragozpenik edo oharrik aurkeztu.
4. Ez zenez erreklamaziorik, eragozpenik edo oharrik aurkeztu, Kontuen Batzorde bereziak ez zuen beste ebazpenik eman behar izan.

Hau erabaki da:

- 1) 2022 ekitaldiari dagokion Kontu Orokorra onestea.
- 2) Ondasunen inbentarioa zuzentzea, tokiko erakundeen ondasunen araudiaren 31. artikulua babesean.

Aldeko 8 (zortzi) boto: Jose Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Leire Martínez Flores (EH Bildu Oion), Eva María Frías Del Val (EH Bildu Oion), Leire Saenz Verano (EH Bildu Oion), Unai Bengoechea Múgica (EH Bildu Oion), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Kontxi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV) eta Sergio Rozas Núñez (EAJ-PNV).

Abstentzioak 3 (hiru): Eduardo Inclán Gil (PP), Rosa Vázquez Iglesias (PP) eta Oscar Layana Río (PSE-EE (PSOE)).

4) 2/2023 aurrekontu-aldaketaren behin betiko onespeneren kontu ematea.

Aurrekariak:

- 1) 02/2023 aurrekontu-aldaketaren espedientea 2023ko maiatzaren 25eko bilkuran onetsi zen eta gastuen egoera-orriko 943 434001, 943 434002, 151 643001 eta 323 629007 partidei eragiten die, bai eta 323 481001 partidarako urte anitzeko gastu-konpromisoen egoerari ere.
- 2) 02/2023 aurrekontu-aldaketaren espedientea jendaurrean jarri da 15 eguneko epean, 2023ko ekainaren 2ko ALHAOn (64. zk.) 01613 iragarkia argitaratu eta hurrengo



egun baliodunetik aurrera zenbatzen hasita. Hasierako onespeneren ebazpenaren aurka ez zen erreklamaziorik, eragozpenik edo oharrik aurkeztu. 2023 ekitaldiko ohiko aurrekontu orokorraren 02/2023 aurrekontu-aldaketa, kreditu gehigarria eta konpromiso-kredituen egoera-orria, 323481001 partidari eragiten diona, behin betiko onetsita geratu da. Honako laburpen honekin:

Kreditu gehigarria:

| Gastuen aplikazioa | Azalpena | Euroak |
|--------------------|---|-----------|
| 943 434001 | Barriobustoko kontzejuari ekarpena | 96.626,29 |
| 943 434002 | Labrazako kontzejuari ekarpena | 73.204,33 |
| 151 643001 | OY-37 sektoreko HAPOren 13. aldaketaren zerbitzu-sariak | 7.139,00 |
| 323 629007 | Energia-efizientzia. Haur-ikasgelategiko LEDak | 14.837,02 |

Espedientea honako zerrenda honetan adierazten diren baliabideen kargu finantzatzen da:

| | | |
|-------|--|------------|
| 87001 | Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinak | 191.806,64 |
|-------|--|------------|

5) Ohiko bilkuren gai-zerrendaren egitura.

Aurrekariak

- 1) Araudia:
 - I. 7/85 Legea, 22.1 c) eta 2 a) eta 46.2 e) artikulua.
 - II. AFA, 42. artikulua.
- 2) Gobernu-organoen kontrola eta fiskalizazioa udaleko osoko bilkuraren eskumena da.
- 3) Ohiko bilkuretan, udalbatzaren gainerako organoak kontrolatzeaz arduratzen den zatiak berezko sustantibotasuna izan beharko du, ebazpen-zatitik berezia egon beharko du eta modu eraginkorren bermatu beharko da udal-talde guztiek parte hartuko dutela galde-eskeak eta mozioak egitean".
- 4) "Alkateak osoko bilkurari, ohiko bilkura bakoitzean, azkeneko ohiko bilkuraren ondoren egindako ebazpen guztien berri emango dio labur, zinegotziek udal-administrazioaren garapena ezagutu dezaten, gobernu-organoen kontrolatzeko eta fiskalizatzeko (...)".
- 5) Osoko bilkura jakinaren gainean jartzeak, bilkura guztietako gai-zerrendan gehituko den atalak, helburu komunikatiboa edo informatzailea besterik ez du; hala, osoko bilkurak ez duela eztabaidarik hasi behar ulertzen da (erabakiak hartzea gutxiago, noski). Nolanahi ere, osoko bilkurako zinegotziek galde-eskeak egiteko aukera izango dute, bilkura horretan edo hurrengoetan, baina dagokion atalean, puntu horren xede izan diren ebazpenei, eta abarri buruz.

Alkate jauna: Hurrengo saioan, ohikoan, gai-zerrendaren egitura aplikatuko da eta bilkuraren deialdiarekin batera alkatezaren ebazpenen kopia bat bidaliko zaie zinegotzi guztiei jakinaren gainean egon daitezten.



6) Abuztuko jaien programaren inguruan hartutako erabakien eta bestelako puntuen inguruko informazioa.

Gobernu-taldeko zinegotziek orain arte egindako lehenengo zereginen kontu eman dute. Martínez Flores (EH Bildu Oion) andreak 2023ko eskerrak emateko jaien programaren kontu eman du. Aurreko urtekoaren oso antzekoa da, izan ere, gobernu-kargua hartu zen egunerako erabaki asko dagoeneko hartuak zeuden. Goitiberak berreskuratuko dira, ur-arrapala bat jarriko da eta apar-festa programatuko da.

Frías Del Val (EH Bildu Oion) andreak arauz kontrako isurketen, legez kanpoko etxolen inguruan Ertzaintzak egindako akten eta Haurreskolako langileekin egindako bileraren (eskola-egutegia eta antzemandako gabeziak) kontu eman du.

Saenz Verano (EH Bildu Oion) andreak Preben Gazte kanpainaren, PADIren uztearen (Haurren Hortzak Zaintzeko Programa) eta Oyón-Oiongo egoitzaren 10. urteurrenaren berri eman du.

Gure helburua elkarte batzuekin harremana berreskuratzea da.

Bengoechea Múgica (EH Bildu Oion) jaunak kirol- eta kultura-gaien berri eman du. Hainbat kirol-klubek hitzarmenik ez dutela ikusi dugu. Udarako haurrentzako gaztelaniazko eta euskarazko zinemaren berri eman du. Kiroletako asteburu-pasa bat programatu dugu klubaren artean senidetasuna sor dadin eta jendeak Oyón-Oiongo kirol-jarduerak ezagutu ditzen. Abenduan antzerkia programatuko dugu Edurne Azkarate Oyón-Oiongo antzezlearekin.

Alkate jauna: Oso pozik gaude egindako lanarekin.

Jorrazteko gai gehiagorik ez dagoenez, alkate-udalburuak amaitutzat eman du bilkura 20:53an (saioa CCXXXI urteko, Bihilisaren hogeita bederatzigarrenaren, hirugarren hamarkadaren bederatzigarren eguneko 20:00etan hasi da), eta nik, idazkariak, guztiaren fede ematen dut.

Oyón-Oionen, 2023ko uztailearen 26an.

Udaleko idazkaria:

Alkatetzak O. E.: